



Hormako Atea

H.G. Wells

Elkarrek argitaratu eta Joxe Mari Berasategik itzultako ipuin-bilduma hau irakurtzen joan zaizkit abuztuko hiru aste eta iraileko egun batzuk.

Eta "abuztuko hiru aste eta iraileko egun batzuk" esaten dudanean, ez dut esan nahi tarte horretan 24 orduz aritu naizenik ipuin hauek irakurtzen; esan nahi dut zera, denbora horretan irakurketari eskaini diodan denbora liburu honi eksklusiboki eskaini diodala (euskaraz, behintzat).

Lehenik, irakurketa ordenatu bat egin nuen, hau da, liburuak irakurri ohi diren bezala irakurri nuen: lehen ipuinetik hasita, eta hala, azkenekora heldu arte.

Batzuetan, oro har, hortxe bukatzen da irakurketa. Kito, liburua irakurri duzu, apalategian gorde dezakezu (lekurik geratzen bazaizu).

Baina, zorionez, hori ez da liburu guztiekin gertatzen. Bogartek film ahaztezin hartan bezala, zenbait kasutan guk ere —irakurleok— esaldi ospetsua ahoskatzeko premia izaten dugu: "Susmoa dut hau adiskidetasun eder baten hasiera dela".

Eta hori bera da liburu honekin gertatu zaidana. Liluratu egin nau. Ez dakit ipuinengatik ote den, Wellsen prosagatik ote den edo, besterik gabe, magia guztia itzulpenari zor zaion. Ziur aski, denetarik izango da.

Badakit, ordea, ezin izan diodala ipuinak behin eta berriro irakurtzeari utzi (ezta nahi ere): zerbaitek eragozten zidan liburuaren irakurketa amaitutzat jotzea. "Eta berriro irakurtzen badut honako ipuin hau...?". Pentsatu eta egin. Oraingoan, baina, ausaz: erdiko ipuinarekin hasi, gero bigarrenera jo, azkenekoarekin jarraitu, lehenbizikora bueltatu, laugarrena segituan... Eta horrela, ez dakit zenbat aldiz.

Batzuetan neure buruari galdetzen diot amnesia edo alzheimer bihurri eta nahastaileren bat sufritzen ez ote dudan, hitzak irakurri ahala nire burutik ezabatzen dituen...

Hala balitz, alzheimer bedeinkatua eta eritasun bedeinkatua!

Errepaso labur bat ipuinetako bakoitzari:

Hormako atea.- Liburuari izena ematen dion ipuina da, baita bilduma honetako lehena ere. Ez da gehien gustatu zaidana, baina gustura irakurri dut. Nire haurtzaroko "pasadizo" bat ekarri dit gogora. Nahiko errepikakorra zen amets bat izan ohi nuen txikitan eta gainera intentsitate handiz bizitzen nuen: oihanean bizi nintzela amesten nuen, askatasun osoan. Eta esnatzen nintzenean eta dena amets bat izana zela ohartzen nintzenean, kolpe latza hartzen nuen. Tristura, frustrazio handi batek harrapatzen ninduen, ezintasun bihurtzen zena: eguna hasteko ez zegoen beste erremediorik... eskolara joatea baino. Funtsean, ametsaren sorburua hori zen; bestalde (eta ez egin barre) nire ametsak erabateko lotura zuen Tarzanen filmekin. Badu azalpenik. Nik ezagutu nuen eskola kaka hutsa izan zen. Jipoiak, irainak, beldurra... Ez dut esango non ikasi nuen. Berdin dio. Joanak joan. Garai bateko eskola izan zen. Bai eskola publikoan bai eskola pribatuan horrela irakasten zen: ostiaka. Diktaturako irakaskuntza-sistema hori zen, diktaturaren indarkeria eta samurtasun eta sentiberatasun eza islatzen zituen, baita haur-hezkuntzan ere. Hezkuntza-sistema militarizatua zen, eta sistema horretatik ihes egin nahian, laster hasi nintzen txikarrak egiten. Ondo pasatzeko asmoz ez ordea, gaizki ez pasatzeko baizik. Beraz, gauez paradisuarekin egiten nuen amets, eta egunez... amesgaizto hura bizi nuen. Ipuin honek hori guztia ekarri dit gogora. Eta horrek pentsarazi dit H.G. Wellsek ere ez ote zuen horrelako egoera bat ezagutu. Litekeena da. Nolakoa izango zen Wellsen garaiko eskola, 1886. urtean jaiotako gizon batena...?

Izarra.- Fikziozko zientziarekin lotutako narrazio katastrofisten saga zabaltzen du ipuin honek; baina, zientzia kontuan hartzen duen narrazio baten aurrean gaude. Zientziak, teknologiak izugarri erakartzen dute Wells; azalpenak ez ditu superstizioan edo irudimenean soilik bilatzen. Kasu honetan, matematikari bat arduratzen da gizarteari gaztigatzeaz zer datorkien gainera. Oso

ondo narratuta dago eta prosak ipuin honetan indar handiagoa hartzen du aurreko ipuinean baino.

Armageddon-en amets bat.- Ipuin honek irakurlearengan "nahasmendu" pixka bat eragingo duela uste dut, ez baitago oso garbi, hasieran, zer gertatzen ari den. Azkenean, konturatu egiten zara protagonistaren ametsak haren errealitatearen parte direla, hau da, haren bizitza bera baino errealagoa den beste dimentsio batera teleportatu egiten da ametsetan. Iragarle-ukitu bat ere badu kontakizun honek: teknologia berriek aurrerantzean gerletan beteko duten zeregina, eta zeinen suntsitzaileak gertatuko diren, iradokitzen baitu. Aurreko bi ipuinetan bezala, heriotza ere presente dago narrazio honetan. Lehendabiziko ipuinean, protagonista hil egiten da; bigarrean, gizateriaren parte handi batek galtzen du bizia; eta hirugarren ipuin honetan, protagonistaren maitasun handia hiltzen da... hori guztia gerra baten testuinguru... errealean, ametsa izan arren (Calderon de la Barcaren "Bizitza amets"?) 40 orriekin, bildumako ipuinik luzeena da, eta gustura irakurri badut ere, ez da gehien gustatu zaidana.

Konoa.- Ipuin hau itzela iruditu zait. Hilketaren batean amaitzen den istorio honek jelsiak eta desleialtasunak ditu ardatz. Hilketaren gertatuko den lekuari buruzko deskribapen teknikoak azpimarratzekoak dira (labe garai batean gertatzen da dena). Prosaren indarra eta narrazioaren erritmoa egundokoak iruditu zaizkit.

Ilartargiaren fabula bat.- Ipuin hau denetan laburrena da, dudarik gabe. Harridura eragin dit, ez dakit, ipuinaren gaiak, pertsonaiak... Lagun duen prosa bikainagatik ez balitz, ez dut uste aparteko balioa izango lukeenik. Baina prosa da ipuineko jantzia bezalako: miresgarria.

Diamantegilea.- Ipuin hau ere asko gustatu zait, oso irudimentsua da eta oso ondo planteatuta dago. Wells ezagutza zientifikoaz baliatuko da berriro narrazioaren ardatza finkatzeko, "Izarra" narrazioan eta batez ere "Konoa"n egin duen bezala, efektu harrigarria erdietsiz eta narrazioari erabateko "sinesgarritasuna" emanaz. Egia esan, antzinako kimera baten bertsio "zientifiko" baino ez da: harri filosofalaren bilaketa. Ipuin polita oso.

Dinamoen jainkoa.- Liburuko azken aurreko ipuinera iritsi gara orain, eta litekena da, nire gusturako, ipuinik onena izatea. Sekulako narrazioa da. Beste behin ere, Wellsek eszenatoki teknologiko bat planteatu digu, jainko suminkorren gisa orro egiten duten makinekin eta bukaera tragiko batekin, bilduma honetako narrazio gehienak izaten diren bezala. Wellsen ipuinek zezenketak ekartzen dizkirate gogora, animalia sakrifizioarekin amaitzeko joera dute-eta; kasu honetan, baina, animalia gizaki bat da beti.

Itsuen herrialdea.- Eta narrazioetako azkenekora iritsi gara, zeina luzeena baita, hirugarrenaren atzetik. Hemen Wellsek berriro hartu du oinarritzat ezagutza zientifikoa, hau da, ikusmenik gabe eboluzionatu duten itsuen herrialdeak argi eta garbi dakar gogora espezieen eboluzioa eta ingurunera egokitzeko espezieek duten gaitasun harrigarria. Zaila da narrazio hau irakurtzea Saramagoren "Itsumenari buruzko saiakera" gogoratu gabe, nahiz eta, egia esan, motiboa kenduta, elkarren artean zerikusi handirik ez izan. Saramagok itsumena erabiltzen du modu kritiko eta alegorikoan, gizartearen alde txarrak salatzen, eta abar; Wellsek, ordea, fantasia bat baino ez du planteatzen, baina hori bai, modu aski sinesgarrian, eta horregatik, ere bai, ematen du zeresan handia. Itsumena eta literatura... Interneten binomio horretan sakon dezakezue, gai gisa berez asko ematen du eta.